



**ESKOLAKO
AGENDA
2030**

IKASTETXE IRAUNKORRA, HERRI IRAUNKORREAN

Tolosaldea 2020-2021



TOLOSA



ingurugela

Kaixo,
Tolosako ikasleok
aurten **Eskola
Agenda 2030**
proiektuan
egindakoa
azaltzera gatoz!

**Guztira 4.700 ikasle
inguru gara**

Tolosaldeko  **ESKOLAKO
AGENDA
2030**



**Laskorain
ikastola**





“Gurekin
batera,
irakasle,
guraso eta
eskolako beste
langileek ere
parte hartu
dute”

ESKOLA AGENDA 21 PROIEKTUA GARAI
BERRIETARA EGOKITUTA DA ETA

ESKOLA AGENDA 2030

ESTREINATU DUGU.
TRANTSIZIO-URTEA HONETAN

**IKASTETXE IRAUNKORRA,
HERRI IRAUNKORREAN**

IZAN DA GURE GAIA.

“Ikastetxe Iraunkorra,
Herri Iraunkorrean”
Ielopezan, Garapen
Iraunkorreko
Helburuak ezagutu
ditugu.

Gure herri eta
ikastetxe iraunkorrek
sortzeko bidean
ingurumen alderdiak
landu ditugu



HERRI PARTAIDETZA

Herri mailan
egindako
lanaren
emaitzak
ekarri
ditugu



- Atera ditugun ondorioak
- Hartuko ditugun konpromisoak
- Udalarari egiteko proposamenak

...

HERRI DIAGNOSTIKOA

Lehen hezkuntza / 1.-2. mailak

GURE HERRI BERRIA

Gaur egungo egoera eta
pandemiaren aurrekoa
konparatu dugu.
Hemendik aurrera gure
herria nolakoa izatea
nahiko genuke aztertu
dugu.

GURE PROPOSAMENAK...

- Tolosa txukunago mantendu: zakarrontzi gehiago, bidegorriak garbitu, ibaia eta kaleak maizago garbitu, lantegien kutsadura kontrolatu...
- Lehen genuen herria berreskuratu nahi dugu: Inauteriak, San Juanak...



HERRI DIAGNOSTIKOA

Lehen hezkuntza / 3.-4. mailak

NIK ... IZAN
NAHI DUT



Lanbideak nola aldatu diren aztertu dugu. Sexuaren araberako lan-banaketa dagoen ala ez eztabaidatu dugu.

GURE KONPRROMISOAK

Etxeko lanetan parte hartuko dugu. Etxeko lanak zerrendatuko ditugu eta etxeko guztien artean banatuko ditugu. Etxeko guztien artean Adostutako antolaketa egingo dugu.

GURE PROPOSAMENAK...

- Lantokietan kontrolatu edo aztertu ea emakumeak berdina kobratzen duten eta aukera berdinak dituzten gizonekin konparatuz.
- Legeak eta araudiak berritu berdintasuna lortzeko.

HERRI DIAGNOSTIKOA

Lehen hezkuntza / 5.-6. mailak

GURE KONPROMISOAK

- Baserriak ezagutu eta hauen alde apustu egin: produktuak erosi, azokara joan...
- Zabaldutako zer garrantzitsuak diren baserriak ingurumena eta paisaia mantentzeko
- Baserritik bizitzea pentsatu
- Saltoki handietan behar-beharrezko produktuak bakarrik erosi
- "JAN TOLOSALDEA" bezalako ekimenetan parte hartu

GURE PROPOSAMENAK...

- Udalekuak antolatu baserrietako bizimodua ezagutzeko.
- Baserriak txukun mantentzen lagundu, margotuak, ... erakargarriagoak izan daitezzen.

BASERRITIK BASERRIRA

Baserrietan eman diren aldaketek ohartu gara eta ingurunean izan duen eragina ezagutu dugu. Etorkizuneko baserria irudikatu dugu.



HERRI DIAGNOSTIKOA

Lehen hezkuntza

HAUEK DIRA
LEHEN
HEZKUNTZAKO
PROPOSAMENAK



- Tolosa txukunago mantendu.
- Pandemia baino lehen genuen herria berreskuratu.
- Lantokietan berdintasuna bermatzen dela kontrolatu edo aztertu.
- Araudia berritu berdintasuna lortzeko.
- Udalekuak antolatu baserrietako bizimodua ezagutzeko.
- Baserriak txukun mantentzen lagundu.

HERRI DIAGNOSTIKOA

Bigarren hezkuntza / 1.-2. mailak



BIZI
BERRI
BAT
EMAN

Erabili eta bota ereduez hausnartu ondoren herrian dauden konponketa eta bigarren eskuko dendak ezagutu ditugu. Produktuen bizi-iraupena luzatzeak duen garrantziaz jabetu gara.



ATERATAKO ONDORIOAK

- Gaur egungo kontsumo-eredua dela eta izugarri kutsatu eta kaltetzen dugu ingurumena.
- Ekonomia linealetik ekonomia zirkularrerako aldaketa gauzatu beharrean gaude: berrerabili eta konpondu. Zabor gutxiago sortzeko
- Lehenengo sektoreak garrantzia galdu du nabarmen eta ondorioz herritarron kontsumoan bertako ekoizleen eragina jaitsi egin da




GURE KONPRROMISOAK

- Berriaren dizdirarekin ez itxutu eta beharrezkoa dena baino ez erosi, ondo erabili eta biziraupena luzatzen saiatu.
- Produktu ekologikoak erosi.
- Denda txikietan erosi.
- Bertako produktuak erosi.

HERRI DIAGNOSTIKOA

Bigarren hezkuntza / 3.-4. mailak

HERRIKO ELIKADURA MAPA



Gure elikadura sistema eta honen ondorioak hausnartu ditugu. Herriko salmenta eta ekoizpen puntuak aztertu ditugu eta azken hamarkadetan egon diren aldaketak ikusi ditugu.

ATERATAKO ONDORIOAK

- Elikagaiak ekoizteko guneak nabarmen gutxitu dira. Baratzak jartzeko eta animalien bazkarako soroak desagertu dira
- Etxe, errepide eta bestelako eraikuntza gehiago daude
- Erosi => Erabili => Bota eskema jarraitzen dugu
- Ekonomia zirkularra sustatuta herri jasangarriagoa lortuko dugu

GURE KONPROMISOAK

- Bertako produktuak eta AZOKAn erosi. Osasungarriak dira, herriko merkataritza bultzatzen da eta gutxiago kutsatzen da.
- Kontsumitzaile arduratsu izaten saiatu:
 - Ekonomia zirkularra bultzatzen duten produktuen alde egin.
 - Produktuen jatorria eta nola sortuak izan diren kontuan hartu.
 - Mugikorra puskatzen denean konpontzera eraman; bigarren eskuko produktuak erabili, ur botilak bete...

HERRIKO DENDAK	 Ekologi-koarekin	 Bertako produktuekin	 Bidezko merkataritzarekin
SUPERMERTU HANDIA	 Azoka	 Kontsumo taldea	 Baserritarren salmenta puntuak
HERRIKO EKOIZLEAK	 Baratzak	 Okina	 Gazta

HERRI DIAGNOSTIKOA

Batxilergoa / Lanbide Heziketa

EKOIZPEN ETA KONTSUMO JASANGARRIA

12 EKOIZPEN ETA
KONTSUMO
ARDURATSUA



12. Garapen Iraunkorren Helburuak ekoizpen eta kontsumo arduratsua bilatzen du. Galdera hauen inguruan hausnarketa egin dugu:

- Zer eskaintza dago gure herrian?
- Zer kontsumo ohitura ditugu herritarrok?
- Nola eragiten dute gure kontsumo ohiturek herrian?
- Eta ingurumenean?

ATERATAKO ONDORIOAK

- Kontsumismoak kutsadura bizkorra eragiten du, irrazionaltasunak, sentiberatasun faltak edo ekintzen ondorioak ez jakiteak.
- Pandemiak internet bidezko erosketak areagotu ditu komertzio txikien kalterako. Baina herrien itxiera perimetralarekin jendeak herriko komertzioetan erosketak egiteko ohitura hartu du.
- Komertzioek plastikoen erabilera murrizteko ahalegina egiten dute baina kanpotik jasotzen dituzten produktuek plastiko asko izaten dute.

GURE KONPRROMISOAK

- Kontsumo arduratsuagoa egin.
- Herriko azoketan eta denda txikietan erosteko ohiturak areagotu.
- Erosketak egitera goazenean gure etxeko poltsak eramatea.

HAUEK DIRA GURE PROPOSAMENAK

- ➔ Baliabidez hornitutako tailer gunea sortu herrian, herritarrek gauzak konpontzeko aukera izan dezagun, eta, nahi duenak ikasteko aukera izan dezan, konponketa-tailerrak antolatu.
- ➔ Diru-laguntzak ezarri ekonomia zirkularreko irizpideak betetzen dituzten ekoizlerentzat eta merkatarientzat, sariak emanez, edo zergak murriztuz, edo...
- ➔ Komertzio txikietan erostea bultzatzeko, bono sistemaren bat jarri (jarri da baina bono gehiago edo denbora gehiagoz).

Denon artean
Hobeto
Bizitzeko
Helburuak
lortuko ditugu !!!

MILA ESKER ZUEN ARRETAGATIK

